ZUZENDARIORDEA	SUSTAP. ETA KUDEAK. ZUZENDARIORDETZA		2015/11/12	OCHANDO ORTIZ, GENOVEVA

**OSASUN DEPARTAMENTUA**

KARGUA	UNITATEA	IZENDAPENA	KARGU-UZTEA	IZENA
GOBERNUKO KONTSEILARIA			2015/07/23	DOMINGUEZ CUNCHILLOS, FERNANDO
KABINETEKO BURUA			2015/07/29	OCHOA ZUBELDIA, LEIRE
KABINETEKO IDAZKARIA			2015/08/03	MORENO USERO, MARIA JOSE
KABINETEKO LAGUNTZAILEA			2015/07/28	VILLACAMPA OCHOA, MARTA
ZUZENDARI NAGUSIA	OSASUN ZN		2017/02/21	GUINDO GONZALEZ, JONE
ZUZENDARI NAGUSIA	OSASUN ZN		2014/09/25	ANSA ERICE, ISABEL MARIA
ZUZENDARI KUDEATZAILEA	NOPLA: OS. PUB. ETA LAN OS. INST.		2015/08/13	GABILONDO PUJOL, LUIS
ZUZENDARI KUDEATZAILEA			2012/08/08	ARANGUREN BALERDI, MARIA SOLEDAD

ZUZENDARI KUDEATZAILEA	OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN Z.	2014/09/19	2015/08/13	IBARROLA GUILLEN, MARIA CRISTINA
ZUZENDARI KUDEATZAILEA	OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN Z.	2015/08/14		MORACHO DEL RIO, OSCAR
ZUZENDARI KUDEATZAILEA	NOPLA : OS. PUB. ETA LAN OS. INST.	2015/08/14		PEREZ JARAUTA, MARIA JOSE
ZUZENDARIA	OINARRIZKO OSAS. LAG.	2011/08/25	2015/09/04	YURSS ARRUGA, JOSE IGNACIO
ZUZENDARIA	OINARRIZKO OSAS. LAG.	2015/09/05		DIEZ ESPINO, JAVIER
ZUZENDARIA	NO: NAF. ODOL ETA EHUN BANKUA	2011/01/28	2016/10/30	RODRIGUEZ WILHELM, PABLO
ZUZENDARIA	NO: NAF. ODOL ETA EHUN BANKUA	2016/12/27		GARCIA ERCE, JOSE ANTONIO
ZUZENDARIA	NO: NAFARROAKO OSPITALEGUNEA	2013/07/05	2015/08/06	PERALTA MARTIN, VICTOR
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSPITALEGUNEKO LAG. ZUZ.	2015/09/03		BERJON REYERO, JESUS
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSPITALEGUNEKO OSAS. ZAINK. ZUZ.	2015/09/03		SORIA SARNAGO, M. TERESA
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSPITALEGUNEKO OSAS. ZAINK. ZUZ.	2013/07/19	2015/09/02	FERRO MONTIU, MERCEDES
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSPITALEGUNEKO OSAS. ZAINK. ZUZ.	2015/09/05		LARRAYOZ DUTREY, MILAGROS
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSP. PROF. ZUZ.	2015/09/05	2016/10/03	CASAJUS GAVARI, GABRIEL
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSP. PROF. ZUZ.	2016/10/04		SAN MARTIN SANCHEZ DE MUNIAIN, LAURA
ZUZENDARIA	NO: NAF. OSPITALEGUNEKO LAG. ZUZ. MED.	2013/07/05	2015/09/02	CALVO GUITIAN, MARIA JESUS
ZUZENDARIA	NO: NAFARROAKO OSPITALEGUNEA	2015/08/07		MERINO DIAZ DE CERIO, ANTONIO
ZUZENDARIA	LIZARRAKO OSASUN BARRUTIKO KUD.	2007/09/04		HERMOSO DE MENDOZA MERINO, MARIA LUISA
ZUZENDARIA	OM: OSASUN MENTALEKO KUD.	2013/07/04	2017/03/12	MARTINEZ LARREA, JESUS ALFREDO
ZUZENDARIA	OM: OSASUN MENTALEKO KUD.	2017/03/13		FLAMARIQUE CHOCARRO, MARIA BEGOÑA
ZUZENDARIA	ZZ: ADMIN. ETA ZERB. OROK. ZUZ.	2013/08/01	2015/09/04	BALDUZ UGARRIZA, FERNANDO
ZUZENDARIA	ZZ: ERIAREN ARR. ETA KALIT. ZUZ.	2011/08/31	2015/09/04	IRIBARREN GASCA, JOSE MARIA
ZUZENDARIA	ZZ: ERIAREN OS. LAG. ZUZ.	2015/09/05	2017/03/12	CARPINTERO NAVARRO, JESUS MANUEL
ZUZENDARIA	ZZ: KUDEAK. EKON. ETA GIZ. SEG. ZUZ.	2017/03/13		MARTINEZ LARREA, JESUS ALFREDO
ZUZENDARIA	ZZ: NAF. OSP. LANG. ZUZ.	2015/09/05	2015/09/04	GARCIA MAYAYO, MARIA LUISA
ZUZENDARIA	ZZ: PROF. ZUZ.	2013/07/19		GORDILLO GUTIERREZ, MARIA OLGA
ZUZENDARIA	ZZ: GIZA BALIAB. ZUZ.	2015/09/10		RUIZ ALVAREZ, ESTEBAN
ZUZENDARIA	TUTERAKO OSASUN BARRUTIKO KUD.	2011/08/29	2015/09/04	NAVASCUES CATALAN, MARIA ELENA
ZUZENDARIA	TUTERAKO OSASUN BARRUTIKO KUD.	2015/09/14	2016/10/06	PEREZ MARTINEZ, BENIGNO
ZUZENDARIA	TUTERAKO OS. BARRUTIKO LAG. ZUZ.	2016/10/07		MORA MARTINEZ, JOSE RAMON
ZUZENDARIORDEA	OOI: NAF. EK. LAG. JARR. ZUZENDARIORDETZA	2016/10/01		SANZ ASIN, OLGA
ZUZENDARIORDEA	OOI: NAF. EK. LAG. JARR. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/28		MALON MUSGO, MARIA DEL MAR
ZUZENDARIORDEA	OOI: NAF. EK. OOL ZUZENDARIORDETZA	2015/10/05		AZAOLA ESTEVEZ, BORJA
ZUZENDARIORDEA	OOI: NAF. EK. OOL ZUZENDARIORDETZA	2011/09/06	2015/09/04	AYERDI NAVARRO, M. CARMEN
ZUZENDARIORDEA	OOI: NAF. IP. OOL ZUZENDARIORDETZA	2012/07/03	2015/09/04	LOPEZ ANDRES, ANTONIO
ZUZENDARIORDEA	OOI: NAF. IP. OOL ZUZENDARIORDETZA	2011/09/01	2015/09/04	HERNANDEZ GALINDO, MARIANO
ZUZENDARIORDEA	NO: PROZ. ANB. ETA DIAG. LAG. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/03		MONTESINO SEMPER, MANUEL
ZUZENDARIORDEA	NO: OSP. ETA LARR. PROZ. LAG. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/03		BELZUNEGUI OTANO, TOMAS
ZUZENDARIORDEA	NO: KIRUR. PROZ. LAG. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/15		ARICETA IRAOLA, JUAN
ZUZENDARIORDEA	NO: KIR. ETA OSP. MED-KIR. BLOK. ZUZENDARIORDETZA	2013/07/19	2015/09/04	HERMOSO DE MENDOZA CANTON, JUANA
ZUZENDARIORDEA	NO: LAG. ETA KALIT. JARRAIT. ZUZENDARIORDETZA	2013/08/26	2015/09/04	GALINDEZ ZUBIRIA, ANA MARIA
ZUZENDARIORDEA	NO: ZAINK. ANB. ETA LAG. DIAG. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/12		ANTONANZAS BAZTAN, ELENA
ZUZENDARIORDEA	NO: PROZ. KIR. ETA BALIAB. MAT.	2015/09/12		MORENO SOUSA, CONCEPCION

ZUZENDARIORDEA	ZUZENDARIORDETZA				
ZUZENDARIORDEA	NO: OSP. ETA LARR: ZAINK. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/12			ANCIN PAGOTO, MARTA
ZUZENDARIORDEA	NO. ZZ. ANB. ETA OSP. LAG. ZUZENDARIORDETZA	2013/07/19	2015/09/04		ALIAGA MARIN, MARGARITA
ZUZENDARIORDEA	NO: ZERB. MED. ZENTR. ZUZENDARIORDETZA	2013/07/19	2015/09/02		GIMENA RAMOS, INMACULADA
ZUZENDARIORDEA	ZZ: OS. LAG. INTEGR. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/04			APEZTEGUJA URROZ, FRANCISCO JAVIER
ZUZENDARIORDEA	ZZ: HORNIK., AZPIEG. ETA GIZ. SEG. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/22			GUIARTE GOÑI, JUAN JESUS
ZUZENDARIORDEA	ZZ: FARMAZIAKO ZUZENDARIORDETZA	2015/09/05			LOPEZ ANDRES, ANTONIO
ZUZENDARIORDEA	ZZ: GASTU KUDEAKETAKO ZUZENDARIORDETZA	2013/08/01	2015/09/04		GARATEA CRELGO, MIGUEL ANGEL
ZUZENDARIORDEA	ZZ: LANG. ETA LAN HAR. ZUZENDARIORDETZA	2015/09/05			ERASO GONI, ESTHER
ZUZENDARIORDEA	ZZ: KUDEAK. ETA GARAP. ZUZENDARIORDETZA	2011/08/29	2015/09/04		AYERRA LAZCANO, JOSE MARIA
ZUZENDARIORDEA	ZZ: LANG. GAST. KONTR. ETA PLANG. ZUZENDARIORDETZA	2013/07/19	2015/09/04		DONEZAR DIEZ DE ULZURRUN, MYRIAM CARMEN
ZUZENDARIORDEA	ZZ: AURREK. ETA GASTU-KONTR. ZUZENDARIORDETZA	2011/08/12	2015/09/04		GARCIA MAYAYO, MARIA LUISA
ZERBITZUBURUA (ZENTROAK)	OOL: OSP. KANP. LARR. ZERB.	2011/09/06	2015/09/04		OTERMIN FAGOAGA, LUIS
NAF. LAG. SOZIOS. PLANAREN KOORD.	OM: LAG. SOZIOSAN. PLANAREN KOORD.	2001/06/04	2015/09/04		GARDE GARDE, MARIA CARMEN



## **Galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzeari buruz informatzeko xedez ikastetxeetan egindako bileretan parte hartu duten pertsonei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzeari buruz informatzeko xedez ikastetxeetan egindako bileretan parte hartu duten pertsoneri buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko maiatzaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00167). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Departamentuetako kargudun horietatik, norzuk joan ziren bileretara?

Guztiak joan ziren bileretara.

Gobernuko gainerako departamentuetako inork parte hartu al zuen bileraren batean?

Ez dakigu bilera irekietara joandako pertsonaren bat Nafarroako Gobernuko funtzionarioa den.

Zuzenean ukitutako ikastetxeek kanpoko inork parte hartu al zuen bileraren batean?

Ez dakigu, arestian aipatutako arrazoiak direla eta.

Gorago aipatutako departamentuetako kargudunen batek parte hartu al zuen Gobernuaz kanpoko elkarteek edo kolektiboek gai horri buruz antolatutako beste bilera edo solasaldiren batean? Nork? Nork gonbidaturik? Non? Noiz?

Eskatutako informazio guztia emateko, arren eskatzen dizugu gehiago zehazteko zein bilerari edo hitzaldiri buruz ari zaren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko ekainaren 16an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Soria-Castejón trenbide-tartea berrirekitzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Soria-Castejón trenbide-tartea berrirekitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko maiatzaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera parlamentarioa egin du (9-17/PES-00168), aurten Soriako Diputazio Probintzialeko osoko bilkuran zeuden talde guztiek aho batez onetsi duten mozio bati buruz, zeinean Espainiako Gobernuak premiatzen baitzuten Gaztelako erregio horretan trenbidea biziberritzeko, eta besteak beste honakoa eskatzen baitzuten: "Soria-Castejón tartea berehala berrirekitzea, era horretan lotura berriak ahalbidetzeko, tren bitartezko salgai-trafikoa eta bidaiari-zerbitzua berreskuratze aldera..." Honako hau da Garapen Ekonomikorako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

– Zein da Gobernuaren irizpidea Soriako Diputazioaren proposamen horri dagokionez?

Nafarroako Gobernuak ez du lehentasunezkoztat jotzen Soria-Castejón tartea berriz irekitzea, erabaki horrek jasotzen duen moduan, zeren eta ekimen honen zioen azalpenean bertan adieraz-

ten denez, tarte hori 1996an itxi baitzen bidaiarien trafikorako eta gero deskatalogatu egin baitzen ADIF trenbide azpiegituren administratzailearen Interes Orokorreko Trenbide Sareko atal gisa.

– Gobernuak kontuan hartu al du Espainiako Gobernuari jarduketarik proposatzea, hura baita azpiegituraren arduraduna, Nafarroako, Errioxako eta Gaztelako herrien arteko komunikazio bide horretarako?

Nafarroako Gobernuak, bidaiarien trafikorako 1996tik itxita dagoen tarte bat denez, eta gero, 2015ean, ADIFen Interes Orokorreko Trenbide Sarearen atal gisa deskatalogatu denez, aztertzen ari da azken horri komunikazio bat bidaltzea, galdetze aldera ea lurra eta instalazioetatik gelditzen dena lagatzearen alde dagoen ala ez, eta zein erantzun ematen diguten, azpiegituraren balizko beste erabilera batzuk baloratuko ditu.

– Gobernuak egokitzen jotzen al ditu bestelako erabilera batzuk (bide berdea, turistikoa, kulturala, kirolekoa, eta abar), errailak mantenduta nahiz horiek behin betiko kenduta, Nafarroako beste toki batzuetan gertatu den bezala?

Galdera horren erantzuna ADIFekin egin beharreko alde aurreko komunikazioen esparruan kokatzen da, eta ematen diguten erantzunaren araberakoa izanen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko uztailaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olazola

## **Galdera, Tulebrasko eta Barillasko ikasleen garraioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tulebrasko eta Barillasko ikasleen garraioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko maiatzaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES-00169 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 523/2016 Ebazpenaren bitartez, 2017-2018 ikasturterako arautu zuen Nafarroako Foru Komunitatean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan nahiz pribatu itunduetan eskolaldi jarraituaren eta eskolaldi malguaren ezarpena. Eskolaldi horren ezarpena oro har arautzen duten jarraibideen seigarren zenbakian, honako hau ezartzen da: “Jan-

tokiko eta eskolako garraio zerbitzuen jarraipena bermatu beharko da, zerbitzu horiek partekatzen dituzten ikastetxeekin koordinatuz. Zerbitzu osagarrien ordutegia ezin izanen da aldatu ikasleen kalterako”.

Gainera, ikastetxe bakoitzaren eskolaldiaren aldaketak ezin du berekin ekarri Hezkuntza Departamentuak gastu handiagoa izatea, ikastetxe horietan eskaintzen dituen zerbitzuetako baka-reen ere.

Tulebrasko eta Barillasko ikastetxeen kasu zehatzean, garraio zerbitzua bermatuta dago orain arte eman izan den baldintza berdinetan, eta hartan ezin da egin ikasleak kaltetuko dituen aldaketarik. Zerbitzuan egiten diren aldaketetarako, edozein ikasleri kalte egin ahal diotenetarako, ukitutako familia guztien adostasuna beharko da.

Jantoki-zerbitzuari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzen du; izan ere, ikasturtean 114 egunetan eskainiko da, hau da, urritik maiatzera astean lau egunetan, orain arte eman izan den baldintza berdinetan.

Iruñean, 2017ko ekainaren 27an.

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuaren eleduna: María Solana Arana

## **Galdera, Secretariado Gitano Fundazioak ijitoen herriaren historia eta kultura hezkuntza-curriculumean jaso izan dadin proposatutako ekimenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Secretariado Gitano Fundazioak ijitoen herriaren historia eta kultura hezkuntza-curriculumean jaso izan dadin proposatutako ekimenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko maiatzaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES/-00170 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1.- Hezkuntza Departamentuaren iritziz, hezkuntza-curriculumerako ekarpen positibo bat da ijitoen herriaren historiari eta kulturari buruzko edukiak sartzea hezkuntza curriculumean, gure gizartearen —gizarte osoaren— aniztasun kulturala erakusten duen kulturen arteko proposamen baten esparruan; izan ere, gure gizartea errespetua eta ezberdintasunen balorazioa bereizgarri dituen herritarren bizikidetasuna garatzen den eremu naturala da.

Gure ustez, hezkuntza-curriculumean jasoz ijitoen herriaren historia eta kulturaren berri emateak baliagarri gerta liteke ijitoen erkidegoaren gaineko ezagutza hobetzeko eta ijitoen irudi sozial anitzago eta aberatsago bat sustatzeko, bai eta ikasleen artean nahiz gizartean errotuta dauden aurreiritzi eta estereotipo negatibo asko gainditzeko ere.

Bestetik, haur ijitoek beren burua islatuta ikusi ahalko dute hezkuntza-materialetan, eta horrela historia komunaren parte sentitu ahalko dira; horrekin, laguntza emanen zaio ikasle ijitoak eta haien familiak hezkuntza-sistemarekin lotuta egoteari buruzko sentimenduak indartzeari.

Hainbat ikerketak erakutsi dute eskola-lotura eskola-arrakastaren determinante nagusietako bat dela —errendimendua bera baino gehiago—. Arrakasta hori lortzeko, gure hezkuntza sistemaren ekitatea bermatu beharra dago, halako moduz non ikasleek jokabidearen aldetik, emozioen aldetik eta ikuspuntu kognitibotik beren ikaskuntza-prozesuarekin lotzeko aukera izanen baitute. Eskola-porrota eta eskola-uztea ezin dira ulertu hezkuntzako deslotura-prozesua kontuan hartu gabe; izan ere, prozesu hori derrigorrezko bigarren hezkuntzaren buruan amaitzen da, baina askoz ere lehenago sortzen da, eta hartan esku hartu beharra dago sistematikoki eta prebentzioaren ikuspuntutik. Curriculum ireki eta malguaren proposamena —zeinak, batetik, gure erkidegoaren aniztasun kultural eta soziala barne bilduko baitu, eta, bestetik, ikasleen interesen aniztasuna— erai-ki behar dugun guztion eskola eta guztiontzako eskola honen beste zutabeetako bat da.

2.- Ikasturte honetan zehar, irakasleei zuzendutako prestakuntza-proposamenak garatu dira, horien kulturen arteko eskumenak hobetzera eta ijitoen historiaren eta kulturaren elementu gakoetako batzuk zabaltzera bideratuak. "Ijitoen erkidegoarekiko hezkuntza barne-hartzailea" prestakuntza-deialdian bereziki landu zen alderdi hori. Nafarroako hainbat ikastetxetako irakasleek hartu zuten prestakuntza horretan.

Halaber, azken bi urteetan, ikastetxeetako eskola-sustatzaileen esperientzia pilotu bat garatu da; horren helburuetako bat da "bizikidetasun giro egoki bat sortzea ikastetxean, hainbat estrategia eta metodologia barne-hartzailearen bitartez, arreta berezia emanez kulturetako eta gutxiengoetako taldeen arteko elkarreragin sozialeko jarrerak sustatzeari". Sustatzailearen figura, halaber, irakasleentzako prestakuntza-erreferentea da, bai eta ikasleentzako kulturen arteko jardueren eta proposamenen dinamizatzailea ere.

2017-2018 ikasturtean, proposamen hori zazpi oinarritzko gizarte zerbitzutara edo mankomunitatetara hedatu da.

Iruñean, 2017ko ekainaren 27an.

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuaren eleduna: María Solana Arana

## **Galdera, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa daukatela frogatzen ez duten irakasleak bitartekoen zerrendetatik kanporatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa daukatela frogatzen ez duten irakasleak bitartekoen zerrendetatik kanporatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko maiatzaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES/-00171 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Honako hau da lehenengo galdera: “Hezkuntza Departamentuak baloratu al du zenbat irakasle geratzen ahal diren zerrendetatik kanpo, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa ez frogatzeagatik?” Erantzuna baiezkua da, kontuan hartuta Hezkuntza Departamentuak zeuzkan datuak eta ontzat emanez, horrenbestez eta behar den bezala, ondorengo egintza administratiboak (2010eko oposizioetako datuak bildu eta prozesatzea) zuzen eta zorrotz egin zirela.

Honako hau da bigarren galdera: “Hezkuntza Departamentuak baloratu al du bitartekoen zerrenda batzuk irakaslerik gabe geratu ahal izatea?” Erantzuna da inongo zerrenda ez dela irakaslerik gabe geratzen, aldi baterako kontratazio-rako izangaiak prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izategatik edo ez izateagatik; irakaskuntza publikoan bitarteko kontratuekin lan egin nahi duten pertsonak, araudi indarduna aplikatuta, bereziki oinarrizkoa, zeina 2006ko LOE legea baita, sartzeko baldintza batzuk bete behar dituzte: titulazioa, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa, hizkuntzak (hizkuntza ereduak edo profilen kasuan), delitu sexuarekiko buruzko ziurtagiria, eta abar. Hartara, zerrendek aldi baterako kontratazio-rako izangai gehiago edo gutxiago izan behar dituzte

sartzeko baldintza guztiak, ez bat bakarrik, egiaztatzen dituzten neurrian.

Honako hau da hirugarren galdera: “Hezkuntza Departamentuak baloratu al du zerrenda huts horiek betetzerakoan prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa duten irakasleak ez aurkitzeko arriskua?” Erantzuna baiezkua da. Bai, baloratu da, baina araudiaren aplikazioak (2006ko LOE legea eta 55/2016 Foru Agindua) eskatzen du funtzio publikoko irakasle guztiek, funts publikoekin finantzaturako irakaskuntza pribatukoek bezala –duela zenbait urte betetzen dute hori–, prestakuntza hori edukitzea eskolak eman ahal izateko. Irakaskuntza publikoak kalitatea izateko bete beharreko baldintzetako bat da irakasleek eskatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izan dezatela.

Hau da laugarren galdera: “Hezkuntza Departamentuak baloratu al du zer egoeratan dauden unibertsitate-titulaziorik izan ez eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan irakasten duten irakasleak, baliokidea den ikastaro pedagogiko eta didaktikoa Nafarroako ikastetxe publiko batean egiteko aukerarik ez dutenak?” Baiezkua da erantzuna.

Honako hau da bosgarren galdera: “Hezkuntza Departamentuak asmorik al du ebazpenaren bete-epearen luzamendurik ezartzeko, ikusirik zer egoera sor litekeen?” Erantzuna baiezkua da, betiere legediaren eta araudiaren aplikazioaren barruan; hori dela eta, joan den maiatzaren 25ean, 1459/2017 Ebazpena argitaratu zen (maiatzaren 29ko 90. NAO), Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 12ko 1081/2017 Ebazpena aldatzen duena; hartan abuztuaren amaierara arteko moratoria bat ezartzen da, une honetan bigarren hezkuntzako irakasleentzako unibertsitate-masterra egiten ari diren eta legezko epea baino lehen hura amaitzen dutenek egiaztasun hori aurkeztu ahal dezaten 2017ko irailaren 1a baino lehen, egun horretan hasten baita sare publikoko irakasle guztiak prestakuntza pedagogiko eta didaktiko hori edukitzera behartzen duen ikasturte berria.

Iruñean, 2017ko uztailaren 12an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuaren eleduna: María Solana Arana

## **Galdera, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak deitutako Jesús María Leizaola sariaren deialdia eta oinarriak Nafarroako Gobernuaren intraneteen argitaratzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak deitutako Jesús María Leizaola sariaren deialdia eta oinarriak Nafarroako Gobernuaren intraneteen argitaratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko ekainaren 2ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-000172); honako hau, hain zuzen:

“-Nafarroako Gobernuaren intraneta, zeina Foru Administrazioari langileentzako informazio eskusiboa emateko baita, publizitatea egiten ari da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak deitu duen eta euskal autonomiari buruzko ikerketan lanik onena baloratzea xede duen “Jesús María Leizaola” sariaren deialdiari eta oinarriari buruz. Nolatan da hori?”

Erantzuna:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendariaren 2017ko ekainaren 22ko txostena igortzen dizut, eta harekin batera txosten horretan aipatzen den Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen 2017ko apirilaren 20ko idazkia. Horrekin erantzuna ematen zaio aipatutako galderari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M<sup>a</sup> José Beaumont Aristu

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-000172); honako hau, hain zuzen:

“-Nafarroako Gobernuaren intraneta, zeina Foru Administrazioari langileentzako informazio eskusiboa emateko baita, publizitatea egiten ari da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak deitu duen eta euskal autonomiari buruzko ikerketan lanik onena baloratzea xede duen “Jesús María Leizaola” sariaren deialdiari eta oinarriari buruz. Nolatan da hori?” Hona erantzuna:

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak 2017ko “Jesús María Leizaola” sariaren deialdia egin zuen, euskal autonomiarekin lotutako xedea duten edo hari buruzko azterketan eta sakontzean eragina izan dezaketen ikerketa-lanetarako.

“Jesús María Leizaola” ikerketa-sari hori 1990ean sortu zuen Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak, bere autonomia-sistemaren berezitasun juridiko eta ekonomikoei buruzko azterlanak sustatu eta haien zabalkundea egiteko.

2017ko apirilaren 20an, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP) idazki bat igorri zion, deialdi horren berri emanez, eta arren eskatu zion gure esparruan hari ahal zen zabalkunde handiena emateko (IVAPek igorritako idazkia erantsi dut).

Albistearen intraneteen argitaratu baino lehen, egiaztatu genuen Herri Administrazioari Institutu Nazionalak albistearen jada argitaratua zuela bere atarian, urtero egiten duen bezala.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan (NAPI) ahaleginak egiten ditugu prestakuntzarekin eta ikerketarekin zerikusia duten albistearen zabalkundea egiteko; hori dela eta, egokitzen jo genuen Herri Administrazioari Institutu Nazionalak argitaratutako albiste hori aditzera ematea, eta IVAPek eskatu ziguna eginez, zabalkundea eman genion.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendaria: Eva Zarranz Alli

Euskal Autonomiaren Inguruan Egindako Ikerlanetarako  
"Jesus Maria de Leizaola" Saria

Premio "Jesús María de Leizaola para trabajos de  
investigación sobre autonomía vasca

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak, euskal autonomiarekin zerikusia edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik ikerketa-ikuspuntu desberdinetatik egindako ikerlanetarako "Jesús María de Leizaola" 2017 sarirako deia egin du Deialdi horren oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, maiatzaren 2ko alean.

Interesatuak jakinaren gainean izateko, argibideak ematen dituen folletoa bidaltzen dizuegu, zure esparruan, ahalik eta zabalkuntza handiena izan dadin eskatuz.

Sarian parte hartzeko, ekainaren 6ra arte ikerlanak aurkez daitezke.

Hala ere, argibide gehiago behar bazenute, dei egin diezaiokezue Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuari, honako zenbaki honetara: 945 017667.

Aldez aurretik, zuen arduraren eta laguntza eskertuz, agur beroa.

El Instituto Vasco de Administración Pública ha convocado el premio "Jesús María de Leizaola" 2017, para trabajos de investigación elaborados desde distintas perspectivas de estudio, cuyo objeto esté relacionado con, la autonomía vasca o pueda redundar en el estudio y profundización de ésta. Las bases de la convocatoria de este año se publican en el Boletín Oficial del País Vasco de 2 de mayo.

Al objeto de posibilitar que los interesados en la convocatoria tengan conocimiento de ella, les remitimos folleto informativo, con el ruego de que, en su ámbito, le den la mayor difusión posible.

Los investigadores que deseen concurrir a tal premio pueden presentar sus trabajos, hasta el 6 de junio.

No obstante, si desean cualquier ampliación de información, pueden dirigirse al número de teléfono 945-017667, del Servicio de Estudios y Publicaciones del Instituto Vasco de Administración Pública.

Agradeciendo de antemano su interés y colaboración, un cordial saludo.

Marta Iglesias Barrio  
Azterlan eta Argitalpen Zerbitzburua

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 20a



## **Galdera, testuliburuetan Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, testuliburuetan Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko ekainaren 2ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES/-00173 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarriak, testuliburuak eta gainerako curriculum-materialei buruzkoak, honako hau dio hitzez hitz:

1. Autonomia pedagogikoa baliatuta, ikastetxe publikoen koordinazio didaktikoko organoek hartu beharko dituzte irakaskuntzak garatzeko erabili beharreko testuliburuak eta gainerako materialak.

2. Testuliburuak eta gainerako materialak editatzeko eta hartzeko, ez da beharrezkoa izango hezkuntza-administrazioaren alde aurreko baimena. Nolanahi ere, ikasleen adinari dagokion zehaztasun zientifikora eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onartutako curriculumera egokituta egon beharko dute. Gainera, Konstituzioan jasotako printzipioekiko, balioekiko, askatasunekiko, eskubideekiko eta betebeharreko, eta lege honetan eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako eta hezkuntzajarduera osoak jarraitu beharreko printzipioekiko eta balioekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute.

2.- Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko Foru Aginduak —indarrrik gabe uzten dituenak martxoaren 4ko 37/2010, ekainaren 18ko 103/2010, abuztuaren 31ko 146/2010 eta irailaren 22ko 88/2014 foru aginduak— honako hau ezartzen du: liburuetan "Euskal Herria" terminoaren erabilera kulturaren eta hizkuntzaren testuinguruan egiten da eta ez testuinguru politikoan, horixe izanik arrazoi nagusia finantzaketatik baztertzeko foru agindu horien arabera, nahiz ez duten batere zehazten; hortaz, ez du inolako pisurik Nafarroaren errealitate instituzionalarekiko errespetu faltak.

3.- Hezkuntza Departamentuan Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren kexa bat jaso genuen, Anaya argitaletxearen Gaztelania ikasgaiaren liburu bati buruz, zeinean ez baita aipatzen euskara Nafarroako hizkuntza ofizial bat dela, nahiz eta den eremu euskaldunean hala den. Kasu horretan, ezin izan genuen esku hartu, salatzailak ez baitzuen aipatutako liburuaren ISBNa eman.

Aurreko puntuetan aipatutakoa kontuan hartuta, ez dugu inongo testuliburuak edo curriculum-materialek detektatu Nafarroako Foru Komunitateak Espainiako Estatuan eta Europar Batasunean osatzen duen errealitate politiko berezituarekiko errespetatzen ez duenik.

Galdetu da ea Hezkuntza Departamentuak sistemaren bat ba ote duen hezkuntza curriculumetan balizko ez-betetzeak detektatzeko. Bada, ikastetxe bakoitzeko irakasleak dira ikasturte amaierako memorian islatzen dutenak helburu guztiak (curriculumekoak nahiz hartatik kanpokoak) bete diren ala ez, eta balizko ez-betetzea eragin duten arrazoiak. Informazio hori ikastetxeko zuzendaritzari ematen zaio, eta horrek ikastetxeko ikuskatzaileari ematen dio.

Iruñean, 2017ko ekainaren 27an.

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuaren eleduna: María Solana Arana